


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Jatetxe bat kudeatzea menua bezain garrantzitsua da. Eta hori bezeroen lehia eta eskakizunengatik da, jada janariarekin bakarrik konformatzen ez direlako. Beraz, esperientzia handia lortu nahi dute, poztasun handiena emango diena.

Eskakizun horiek betetzeko, komunikazio-kanalak ordena, eskaera eta ordainketa prozesu osoan harremana hobetzeko bitarteko eta irtenbide gisa izateko sortu dira.

Gure jatetxearen **publizitatea** egiteko beste modu bat gure sare sozialei esker izango da; izan ere, Instagramen kontu bat sortu dugu gure negozioa sustatzeko eta gure bezeroak handitzeko. Zorionez, jendea erantzun ona eman dio gure kontuaren sorrerari eta 5000 jarraitzaile inguru lortu ditugu. Sare sozial hau eguneroko janarien argazki batzuk gure bezeroekin partekatzeko erabiliko dugu.



Gailu mugikorren erabilera nabarmen hedatu da, eta, egunean zehar erabili ezean, lasaitasunez jardutea galarazi digute. Aplikazio modernoek esker lortzen diren erraztasunak direla eta, ezinbestekoa iruditu zaigu gure bezeroen eguneroko erabilerarako **aplikazio bat** merkaturatzea.

Gure balio proposamena bezeroei edo bezero segmentuei banatzeko bi bide garrantzitsuak izango ditugu: alde batetik, **Interneten bidez** saldu, eta bestetik, gure **jatetxean** bertan saldu.

Gure **web orrian** edariak eta janariak sartuko ditugu, eta bezeroek alde aurretik jakin ahal izango dute sukaldaritzako zer gozamen eskaintzen ditugun. Gainera,

gure jatetxeko argazki batzuk gehituko ditugu, jatetxean bizi den atmosfera bikaina transmititzeko.

Weborriari esker, eskaera gehiago izango dugu eta gure bezeroek nahi duten tupperrak aukeratu ahal izango dituzte, erreserba online bat eginez. Kasu hauetan, kontratatuko ditugun lau banatzaile lan honetaz arduratuko dira, hau da, Parke Teknologikoan kokatzen diren bezeroei haien eskaerak eramango dizkiete. Horretarako **Xiaomirekin** egindako aliantzaren ostean bereganatuko ditugun patinete elektrikoen bidez mugituko dira. Hala ere, lehen azaldu dugun bezala, lokalean bertan janaria erosteko aukera eskainiko dugu.

